# KORNUS edo MUGIRIO

Hondarribiko toki-izenen artean zaharrena edo zaharrenetakoa Kornus da.

Irailaren zortziko alardean ordea, txunditurik gelditu nintzen konpañia baten izentzat "Mendi auzoa" irakurtzeaz. Ez dakit noiz hasi ziren Kornusi "Montaña" deitzen, baina oso berria dela dirudi. Zeren joan zen mendearen hasierara arte Kornus edo Mugirio bezala ezagutzen bai zen. Eta, orain, joan zen mendetik norbaitek erdaldundua hara hor alardean euskarara itzulia.

Erremedio hori, gaitza bera baino okerragoa da.

XVII eta XVIII. mendeetan Jaizkibeldik Higerrera arteko gailurretatik itsasalderako guzia zen Kornus, eta beste izen batez Mugirio bezala ezagutzen zena; orain "Montaña" bezala agertzen zaigu.

Bietarik zaharrena eta hedatuena, baserri batek bere memoria gorde diguna, Kornus dugu noski. Agian erromarrengandik datorkigu, mendi-adarra edo itsas-adarra adieraziz, latinak erakusten digunez. Baina baditeke bere atzizkia Akitanian hain hedatua den "-oz" izatea, zeren agiri zaharretan maiz irakurtzen bai da "Cornoz".

Historiagileek 1280ko guduan aipatzen dute Kornus, baina aurkitu dudan agiririk zaharrena 1481ekoa da. Eta Kornus zeritzan lurralde hortan geroztik eraiki zen izen hori daraman baserria.

Zergatik ez bere izen jatorra itzuli? Hondarribiko Udalak du azken hitza. Guk, helduden urteko alardean, "Kornus konpañia" pozago irakurriko genuke.

*Juan San Martin*

# HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERAK

### EZKONTZAK

IRAILAK

20: SANTIAGO Elduaien Bilbao - 25 urtekoa - Hondarribiarra.
ANA M.ª Perez Sardon - Donostian jaio eta Irunen bizi dena.

26: JUAN JOSE Montero Bascaseau - Donostian jaio eta Irunen bizi dena.
M.ª LOURDES Iraola Pellejero - 24 urtekoa - Donostian jaio eta Hondarribian bizi dena.

27: MIGUEL ALFONSO Sanz Aguado - 28 urtekoa - Donostian jaio eta Hondarribian bizi dena.
CRISTINA Uriarte Toledo - 25 urtekoa Bilbon jaio eta Hondarribian bizi dena.

URRIAK

4: JUAN M.ª Elvira Conde - 34 urtekoa - Pasaian jaio eta Errenterian bizi dena.
MARGARITA Sagarzazu Mutuberria 27 urtekoa - Hondarribiarra.

4: JUAN AGUSTIN Sagardia Gragirena 30 urtekoa - Irunen jaio eta bertan bizi dena.
ANA Elias Goikoetxea - 19 urtekoa - Hondarribiarra.

4: JESUS ANGEL Egurzegi Arnaiz - 26 urtekoa - Palencian jaioa eta Hondarribian bizi dena.
M.ª CARMEN Iza Indo - 24 urtekoa - Hondarribiarra.

4: JUAN M.ª Lasa Ulacia - 33 urtekoa - Tolosan jaio eta bertan bizi dena.
MARIA Berasategi Otegi - 28 urtekoa Donostian jaio eta Hondarribian bizi dena.

11: JUAN LUIS San Pablo de la Peña - 24 urtekoa - Donostian jaio eta Hondarribian bizi dena.
M.ª VISITACION Perez Fernandez - 23 urtekoa - Donostian jaio eta Irunen bizi dena.

11: JOSE M.ª Gurutxet Tumas - 36 urtekoa - Hondarribiarra.
M.ª JUNCAL Irizar Beasain - Madriden jaio eta Irunen bizi dena.

11: RAMON Eceiza Perez - 28 urtekoa - Hondarribiarra.
M.ª PILAR Ugarte Errazkin - 29 urtekoa - Irunen jaio eta bertan bizi dena.

18: JOSE IGNACIO Tomasena Zubieta - 27 urtekoa - Etxalarren jaio eta bertan bizi dena.
M.ª CRISTINA Losada Frieiro - 25 urtekoa - Santiago de Compostelan jaio eta Hondarribian bizi dena.

25: CANDIDO Diaz Vitoria - 28 urtekoa - Hondarribiarra.
M.ª TERESA Zapiain Iza - 30 urtekoa - Hondarribiarra.

30: MANUEL Meneses Jimenez - 30 urtekoa - Galdaren (Las Palmas) jaio eta Hondarribian bizi dena.
M.ª CORO Lertxundi Etxeberria - 31 urtekoa - Hondarribiarra.

### JAIOTZAK

IRAILAK

30: NAIA Kerejeta Larrañeta
Imanol eta Reginaren alaba.
Pasaia kalea - Oroitz bide.

URRIAK

3: MARTXEL Almandoz Gastón
Santiago eta Isabelen semea.
Denda kalea, 7 - 1.ª.

5: OLATZ Perez Anzisar
Jose Manuel eta M.ª Eugeniaren alaba
Semisarga auzoa - Zigarrenea.

4: ITSASO Agirrezabala Aristizabal
Lorenzo eta M.ª Karmenen alaba.
Mendelu - Erreka alde.

8: CAROLINA Ortega Luna
Alberto eta M.ª Remediosen alaba.
Zuloaga kalea - C - 4.ª.

22: ASIER Sierra Etxebeste
Luis eta Estherren semea.
San Pedro kalea, 38 - 2.ª.

26: ANDER Yanci ZUBILLAGA
Pedro eta Mertxeren semea.
San Pedro kalea, 7 - 3.ª.

### HERIOTZAK

URRIAK

2: FRANCISCO Soroa Muguruza
79 urtekoa - Hondarribian jaioa.
Amute auzoa, 35.

12: VALENTINA Etxebeste Zapirain
53 urtekoa - Irunen jaioa.
Josu Langile, 8.

12: EPIFANIA Etxebeste Olaskoaga
78 urtekoa - Hondarribian jaioa.
Denda kalea, 5.

17: Francisca EGUREN AYESTA
90 urtekoa - Bergaran jaioa.
Gebara-borda etxea.

21: ANSELMO Napal Lanas
78 urtekoa - Nafarroan jaioa.
San Gabriel egoitza.

22: NICOLASA Eizagirre Genua
80 urtekoa - Hondarribian jaioa.
Gure Txokoa etxea.

**GALARZA**
*Garbigaidenda*
San Pedro kalean HONDARRIBIA

**LAPITZ JANARIDENDA**
*Erosketa hobeak*
S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

**AXULAR LIBURUDENDA**
*Didaktika jokoak*
*Euskal liburu eta diskak*
Matxin de Arzu kalean - HONDARRIBIA